

HITZEN HURRENKERA “GOGORTUEGIA” ERABILTZEN OTE DUGU IDATZIAN?¹

Julian Maia eta Kepa Larrea

(Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV-EHU)

[AURKIBIDEA](#)

*andre ederra eziñ geiago,
umilla eta dultzia,
surtan jartzian probatutzen da
nolakua dan eltzia.*

Xenpelar

Laburpena

Artikulu honetan euskarazko esaldiko elementuen hurrenkeraz jarduten dugu. Hasieran, gero erakutsiko den ikerketa enpiriko baten markoa azaltzen da. Gaiaren ikuspegi historikoa aurkezten da eta etorkizunari buruzko gogoeta egiten. Segidan, azterketa enpirikoa aurkezten da. Unibertsitateko ikasle batzuei eta aditu talde bati esaldi batzuk aurkezten zaizkie eta galdetzen zaie zuzen dezatela hitzen ordena, esaldiak oker eratuak baldin badira. 62 item aztertzen dira. Hipotesia da hitzen hurrenkerari buruzko iritzietan aldaketa gertatzen ari dela jendartean, eta ikasi nahi da ea zenbateko indarra duten zuzentasun-arau batzuek, XX. mendean ustez nagusi izan direnek. Emaitzek agertzen dute unibertsitateko gazteen laginak aditu taldeak baino irizpide zurrunagoak erakusten dituela hitzen hurrenkeraz, eta hala bide ematen digute interpretatzeko irizpideen aldaketa gertatzen ari dela, eta adituek irizpide “eguneratuagoak” eta irekiagoak dituztela hitz-ordenari dagokionez.

Gako-hitzak: euskara, hitz-ordena, komunikazio-bizkortasuna, zuzentasun-irizpideak, bilakaera.

1. Sarrera

Euskarazko hitzen hurrenkera egokitzen edo zuzentzen zein jo daite(z)keen, auzi garrantzitsua izan da euskaraz lehenago eta hala iduri du izanen dela oraindik ere. Joan den XX. mendean arreta handia eman zaio afera horri, eta ez da harritzekoa: hizkuntzaren komunikazio-bizkortasunari zuzenean eragiteaz gain badu beste dimentsio ideologiko bat,

¹ Lan honek laguntza izan du UPV/EHUk emana, EHU10/50 proiektuaren bidez.

izan ere ezaguna baita iritzia herriaren espiritua hizkuntzan islatzen dela eta bereziki sintaxian (Ibar 1935, Altube 1975, Txillardeggi 1978).

Ondoko lerroetan gai horretaz ariko gara, lau ataletan: hasierakoan, aferak gaur egun duen markoaz jardunen dugu, kontuan harturik ikuspegi historikoa ere; hurrengoan, marko horren arabera antolaturiko ikerketa enpiriko baten berri emanen dugu; eta azkenik, ondorio eta gogoeta batzuk aurkeztuko ditugu.

2. Markoaren ezaugarriak

2.1. Orain arteko bideaz

Hitzen hurrenkeraren aferari buruzko ikerketa honetan hiru garai bereizi ditugu joan den mendearen hasieratik gaur arte: a) XX. mendearen hasiera (lehen herena); b) euskararen normalizazio eta modernizazio prozesuaren (hasierako) garaia; c) prozesu horretan sakontzeko garaia (XX. mendearen azken hamarrurtekoan hasita).

Lehen garai horretan nolabaiteko pizkunde garaia bizi zen euskararen alorrean, eta garrantzia ematen zitzaion desberdin izateari eta hala irauteari (Ibar 1935). Testuinguru horretan agertu zen Altuberen *Erderismos* lana (1929an argitaratua). Lan horretan formulatu zen aski luze eta zabal arau-ustezko multzo bat, euskaraz ongi eta interferentziarik gabe jarduteko². Lehen mailako helburua zen erakustea nolako izan beharko lukeen gaztelaniaren kutsurik gabeko euskarak, egiazko euskara jatorrenak. Garrantzi berezia ematen zitzaion sintaxiari, eta horretan hitzen hurrenkera lehen mailako osagaia da. Gerra aitzineko garai horretan, euskal hizkuntza ez zen batere hedatua testuinguru formaletan. Zalantzarik gabe esanguratsua da liburu bera gaztelaniaz idatzia izatea ere. Hau da: gaztelaniaz azaltzen zen euskaraz nola egin beharko litzatekeen, eta gaztelaniaz kritikatzin zen zorrozki euskaraz nola egiten zen egiazki. Gerra lehertu zenean euskararen berpizkunde-asmoak itzali ziren bolada baterako. Baina halere Altuberen lan horrek arrakasta izan zuen, hala agertu baitzen gero euskara batuaren sorreran. Arrakastaren erakusgarri aipa daiteke nolako laudoriozko aipamena egiten zitzaion *Erderismos*-en egileari urte batzuk geroago (Txillardeggi 1970:5).

Besteak beste, *Erderismos* liburuan proposaturikoen artean aipatzekoak dira galdegaiaren legearen betebeharrak zorrotza eta, esaldiko hitzen hurrenkerari dagokionez, beste ideia hauek ere, denak ere gaztelaniarekin kontraste bizi-bizian: 1) aditza atzean jartzeko joera³; 2) menpeko esaldiak nagusiaren aurretik jarri behar dira; eta 3) morfema menperagailuak menpeko perpausaren azken aldean jartzekoak dira. Hiru "arau" horiek batera ezartzen baditugu zuzen-zuzenean eramaten gaituzte euskararen "atzerakargara" (Zubimendi & Esnal 1993).

Bigarren garai gisa aipatu dugu euskararen normalizazioaren hasiera: euskara batua sortzeko eta lehen pausoak egiteko denbora. Prozesu hori 1960-1970 inguruan hasi zen eta haren ezaugarri garrantzitsu bat da euskarari eman nahi zitzaizkion bidea zernahi gai tratatzeko eta zernahi esparrutan. Euskara kode idatzian oso gutxi erabiltzen zen jendartean. Ondorioz, hagitx jende aditu gutxi izanzen zen ongi prestatua euskararen gainean. Euskara esparru formal batzuetan gehiago sartzen hasi zenean hizkuntza erabiltzeko ereduak bilatu behar izan ziren. Altubek aurkezturikoa gertatu zen erreferentzia nagusia eta osoena (Txillardeggi 1970). Kritika

² Azkue jotzen da Altuberen aurrekari eta eragile (ad. ikus Hidalgo 1996).

³ *Erderismos*-en ez da hitzez hitz lege hori formulatzen, baina ondorio hori etortzen da ezinbestean (ik. Hidalgo 1996: 23).

ongi funtsatuak izan zituen (adibidez: Mitxelena 1968; Villasante 1975, 1979), baina ñabardurekin bada ere, haren itzala han eta hemen agertzen zen (Goenaga 1980, Arejita 1983). Eredu hori harat eta honat zabaltzeko arrazoiaren artean aipa daiteke euskaldun gehien-gehienak beren hizkeran konfiantzarik gabe egonen zirela, eskolan hizkuntza landu faltan. Lege eta arau zurrunezko eredu batek poliki beteko zuen segur aski helburua hiztunari (eta irakasleari) segurtasuna ematekoa.

Eta horrela iristen gara hirugarren garaira. Hogeigarren mendearen azken hamarrurtekoan, euskara esparru formaletan franko sartu da. Erabiltzen da komunikabideetan (TB, irratia, prentsa idatzia), administrazioan (IVAP-EHAAREN lana esparru horretan sartzen da), eta batez ere hezkuntzaren munduan, non maila guztietan sartu den franko bizkor. Unibertsitatean ere nabaria da euskararen hazkundera (adibidez, UPV-EHU 2011). Esparru akademiko hori erabiliko dugu gehienbat azalpena egiteko hurrengo lerroetan, baina antzeko ideiak esan litezke beste esparru formal batzuei buruz ere (prentsa, literatura, legegintza...).

Unibertsitatean egiten den jardun-motak azalpen- eta argudio-testu asko sortzera eta prozesatzera eramaten du. Eduki akademiko bihurri bat egiazki transmititu edo jaso nahi denean, hizkuntzari buruzko ideologia alde batera gelditzen da eta hizkuntzaren komunikazio-efizientzia nahi izaten da. Eta gehiago da hala, ikasgeletako komunikazio saio horietan igorleak eta hartzaileak, biek baitakite aski ongi ideia berak komunikatzen beste hizkuntza indartsu batean ere. Bestela esan: hiztun euskaldun batek kasik beti izanen du aukera euskaraz har dezakeen informazio akademikoa beste hizkuntza indartsuren batean hartzeko (gaztelania/frantsesa edo ingelesa). Eta hizkuntza bat bestea baino nabarmenki pisuagoa bazaio, eta pisutasun hori berezkoa eta intrinsekoki gainditu ezina badu... beharbada beste hizkuntzara alda daiteke.

Horrelako zerbait gertatzen hasi bide zen joan den mendearen azken aldera. Euskara egiazki erabiltzen delarik komunikazio-saio esanguratsuetan, hizkuntzak dituen komunikazio-arazoak ere agertzen dira, aztertzen dira, eta soluzioak proposatzen dira. Nagusitasuna lortu zuen (duen) eredu “idealak” dituen arazoak gainditzeko, proposamen desberdinen artean bi jarrera nagusi bereiz daitezke: batetik, euskara laboratorioran bezala homologatu nahi da lasterka (Rubio 2002); bestetik, aitzinamendu doitua erdietsi nahi da, kontuan hartuta tradizioa (zabal ulertua) eta jendartearen orain artean hedatuak diren jardunbideak (Zubimendi & Esnal 1993; Hidalgo 1996, 2002; Garzia 1997; Alberdi & Sarasola 2001; IVAP-EHAA 2003, 2005; BERRIA 2006; Kaltzakorta 2007; Aristegieta 2009; Euskaltzaindia 2011...).

Rubio irakaslearen proposamenari artifizialtasuna egozten ahal zaio aisa (besteak beste, ingelesezko *in* eta *on* preposizioak proposatzen ditu euskaraz erabiltzeko); beste multzoan sartu ditugun jarrera izanen litzateke hizkuntza arian-arian doitzea eta egokitzea, tradizioa sakon aztertuz eta proposamen bakoitza ongi haztatuz eta doituz.

Ideien bilakaerari begiraturik, berriz, aipatzekoa da ezen zenbat eta gehiago erabili hizkuntza, orduan eta pisu handiagoa hartzen duela komunikazio-indarrak, eta horrenbestez ideologiaren eta idealismoaren eragina erlatiboki txikiagoa egiten dela. Ideologiak bazkaturiko hasierako idealismo haren legeak gero eta zailagoak gertatzen dira egiazki eta efizienteki komunikatu nahi baldin bada.

Guztiaren buruan, laburbilduz, esaldiko elementuen hurrenkerari begira, hiru jarrera bereizten ditugu: a) jarrera idealista-idiosinkratikoa (*Erderismos*-eko eredua, joan den

mendean nagusi izan dena); b) “laboratorioan” lasterka homologatzeko jarrera (Rubio 2002); c) arian-ariko egokitze doitua eta haztatua (Zubimendi & Esnal 1993; eta beste...)⁴.

2.2. Etorkizunerantz

Euskarazko esaldietako elementuen hurrenkera komunikazio-indarraz jarduteko orduan faktore batzuei jarri behar zaie arreta.

Hizkuntzalaritzaren ikuspuntutik, kontuan hartzekoak dira hizkuntzen arteko distantzia eta euskaraz testu mota batzuk zenbat landu diren. Distantziari dagokionez, batzuentzat, zenbat eta gaztelaniatik/frantsesetik urrutiago, orduan eta euskara hobea eta jatorragoa da. Gure ustez faktore horri garrantzia kendu behar zaio. Beste hizkuntzen nolakoek ez lukete eraman behar lehenestera edo ederrestera komunikazioaren ikuspuntutik trabagarriagoak diren hurrenkerak. Euskarak bere komunikazio-indarra landu behar du, eta zuhurragoa iduri du hiztun-erkidegoarentzat baliagarriak eta “lehiakorak” diren joerak sustatzeak.

Kontuan hartu behar da, orobat, zenbait testu motatan euskarak ez duela oraindik garatu hurrenkera finko bat, zalantzarik gabe hura eredu gisa baliatzeko. Azalpen eta argudio-testuetan, adibidez, nekez esan daiteke dagoeneko badela euskaraz eredu aski irmo bat, orain aldatu ezin litzatekeena hizkuntzaren izaera edo are “esentzia” hondatu gabe. Testu-mota batzuetan gutxi erabili izanak, hain zuzen ere, askatasuna eman behar du lasai-lasai eredurik aberasgarriena (efizienteena) hautatzeko eta hura garatzeko. Eta nondik eta nola atera behar dira osagaiak eredu hori eraikitzeke?

Alde batetik, idatzizko tradizioa aztertzeke bere osotasunean eta aurreiritzi murrizgarririk gabe. Bestetik, ahozko tradizioan ere aurki daitezke baliabide egokiak erregistro idatzi formalera ekartzeko; bestela esan: ahozko kodetik idatzizkora osagai gehiago ekarrita. Lehenago ere izan dira ildo horretan iritziak eta jardunak aski oinarri onekoak (ad. Villasante 1979, 1988). Gogora dezagun, orobat, bai Mitxelenak (1968) eta bai Villasantek (1979, 1988) aipatzen dutela Europa guzian badela prosa garatzeko modu antzeko bat. Iritzi horien jatorri fidagarriak ere eramaten du pentsatzera ez litzatekeela arinegi abiatu behar euskararentzat garabide guztiz diferenteak bilatzera.

Soziolinguistikari ere begiratu behar zaio. Mundu globalizatu honen ezaugarrietako bat da badela gero eta harreman handiagoa beste hizkuntza batzuekin. Lehenago euskal jendarlean bi hizkuntza ziren jokoan, euskara eta gaztelania edo frantsesa. Haietan, euskara zen hizkuntza ahula bi hizkuntzen arteko erlazio diglosikoan. Orain, gero eta gehiago ari da jendarlean sartzten testuinguru eleaniztun batean. Ingelesa gero eta hedatuagoa da *lingua franca* gisa Europa guztian (Cenoz & Jessner 2000); interneten bidez beste hizkuntza batzuekin kontaktu gehiago izaten da gaur egun, baina ingelesarekikoa are handiagoa da. Euskal Herrian hezkuntzan nabaria da eleaniztasun egoeraren hazkundera (Lasagabaster 2000; Eusko Jaurlaritzak 2011). Ezaguna da orobat ikastolen elkarteak duen proiektu eleaniztuna, lau hizkuntzatan komunikazio gaitasuna erdiestekoa (EHIK 2009). Euskarak, orotara, gaztelaniarekin/frantsesarekin eta ingelesarekin nolabaiteko lehiak garatu beharko du eta bere tokia aurkitu. Aintzat hartzekoa da halaber euskal jendarlean % 42 dela elebiduna (besteak elebakarrak dira, ez euskaldunak). Horiek guztiak kontuan hartzeko puntuak dira euskara idatziaren garabideak hautatzeko orduan.

⁴ Ikus Maia & Larrea 2012.

Begiratu behar zaio, orobat, hiztunari eta haren burmuinak egin behar duen lanari (psikolinguistika). Atzerakargaren kontzeptuak (Zubimendi & Esnal 1993) erreferentzia egiten dio esaldien elementuak prozesatzeko gaitasunari: osagai garrantzitsuak ez daitezke hagitx gibelera jarri, bestela zailago egiten baita haien prozesatzea; idatziak euskaraz eraturiko pentsamendua islatu behar du, ez du *jasan* behar sistematikoki formaren berrelaborazio sakon bat, bortxan bada bortxan azkenean biltzeko ustezko eredu ideal baten moldera. Bestalde, gaur egun azpimarratzen da elebiduna ez dela bi elebakarren batura; hiztun erreferentzia ideala, beraz, ez da pertsona elebakarra, bien osagaiez osaturiko nor-bait baizik (Grosjean 1989). Hizkuntzak ikasteko eta haien erabiltzeko orduan ere eredu psikolinguistikoek azpimarratzen dituzte transferentziaren kontzeptua eta eleaniztunaren oharrenaren berezia (Cenoz, Hufeisen & Jessner 2001; Herdina & Jessner 2002). Guztiaren buruan: zenbateraino planteatu dakiok eleaniztunari eginahalean saia dadila bereziki hizkuntza bakoitzaren ezaugarri bitxienei bereizirik eusten? Are gehiago: badu zentzurik elkarretatik “ahalik eta haratenera” joateak arront bide desberdinetan barna, hizkuntza batek badituelarik bere tradizioan baliabide erkideak edo antzekoak beste hizkuntzekin?

Horiek guztiak iradokitzen dute ongi aztertu behar dela euskararen garabideak zenbateko aukerak izanen dituen arrakasta lortzeko baldin eta ahaleginak egiten badira abiatzeko arront beste hizkuntzen kontrako norabidean. Faktore horiek denak kontuan hartu behar lirateke, besteak beste, euskararen garabiderik hoberena hautatzeko.

3. Azterketa enpirikoaren zertzeladak

Aurreko lerroetan saiatu gara erakusten zer ezaugarri dituen ikerketa enpiriko hau garatzen den markoak, batetik ikuspegi historiko laburra emanaz eta bestetik argudiatuz etorkizunari begira zer hartu beharko litzatekeen kontuan, gutxienean, gure ustez.

Gure ikuspuntuaren arabera, gaur egun iritzien bilakaera ari da gertatzen esaldiko elementuen hurrenkerari dagokionez. Euskararen normalizazio prozesua abiatu zenetik eredu idealista-idiosinkratikoa izan da nagusi, baina joan den mendearen azken hamarrurtekoetik aurrera proposamen frankotan ageri da joera eredu hura kritikatzeko eta hobetzeko, nork osoro, nork xehero. Prosa logiko-diskurtsiboa garatzean ageriago dira ereduaren mugak eta trabak. Azalpen eta argudio testu “korapilatsuen” ugaritzeak, besteak beste, ekarri du zailtasunez ohartzea eta, ondorioz, gero eta proposamen gehiagok jartzen ditu zalantzan hasierako eredu nagusi haren ezaugarri batzuk, eta horrela, zuzentasunaren irizpidea aldatzen ari da. Esaldi batean biltzeko, esan liteke gaur egun aisago ematen direla ontzat eta bilatzen direla hitz-hurrenkera malguagoak eta zauliagoak euskarari komunikazio-efizientzia handiagoa emateko.

Gure hipotesiaren arabera, irizpide aldatze hori haratago joana da hain zuzen ere hizkuntzaren egungo erabilera formalean goi-mailako aditutzat jo daitezkeen artean; bestela esan: goi-adituen artean bada sentiberatasun handiagoa euskararen atzerakarga maila batean edo bestean kentzearen alde; XX. mendearen hasieran formulaturiko legeak ez dira jarraitzen akritikoki, egunoro testu azalpenezkoak eta argudiozkoak lan-gai dituzten hiztunen artean.

Bestalde, aipatu iritzi aldaketa horren aztarnak ageriko dira hiztun unibertsitario gazteen artean ere, baina hauen zuzentasun irizpideetan pisu handiagoa izanen dute oraindik *Erderismos*-eko ideiek. Horren arrazoien artean hauek aipatuko genituzke: alde batetik, harreman txikiagoa izan dute ikasleok azalpen- edo argudio-testu bihurri-korapilatsuekin, eta

bestetik, batez ere, euren ikasketa prozesuaren denboran “lege” zurrun haiek ziren nagusi eta ikasleok ideia haien isla erakusten dute.

Horiexek dira, gure ustez, ikerketa enpirikoaren markoa zedarritzen duten elementu nagusiak. Jarrera teoriko horretatik abiatuta, ondoan aurkezten den azterketa enpirikoan ikusi nahi da ea goi-aditu batzuek eta hizkuntzaren profesional izanen diren batzuek nolako jokabidea erakusten duten zenbait ordena “ez-hain-ohiko”ren aurrean⁵. Ikusi nahi da, horrela, ea iritzi mailan agertzen ari diren joerek zenbateko segimendua duten hizkuntzaren erabiltzaile kualifikatu horien artean; edo bestela esateko: ikusi nahi da zenbaterainoko indarra duten, alde batetik “erderismostar” joerak, eta bestetik hari kritika egitera datozen iritzi berriagoek.

Horren berri ikasteko antolatu dugu ondoan azaltzen dugun azterketa enpiriko hau.

3.1. Hipotesiak

1. “Atzera-kargadun” antolamenduaren aldeko joerak indar nabaria izanen du oraindik; ordena horrekiko kritikoak diren joerak oraindik ez dira indarrean iritsi belaunaldi gazteagoen artera.

2. Zuzentasuna epaitzeko irizpide formalak eta simple xamarrak erabiliko dira; irizpide orokor batzuei segituz, hainbat esaldi zuzendu eginen dira, hartarako “beharrrik” gabe.

3. Irizpide estu-zalea ageriko da, beraz: aukera desberdin batzuen ontasuna onartzera baino gehiago joko da ustezko eredu ideal batzuen arauak betetzera; antolamendu ideal hori betetzen ez duten esaldiak zuzenduko dira.

4. Ideia horiek indar handiagoa izanen dute formazioan ari diren gazteen artean eta ez hainbestekoa goi-adituen artean. Aditu hauek adinez ere helduagoak dira, eta lanbidez franko usatuak testu azalpenezkoekin eta argudiozkoekin jarduten. Hau da, hiztun gazteagoen formazio-bidean joera “atzera-kargadunek” indar handiagoa izanen dute goi-adituen artean baino; edo bestela esateko: goi-adituen artean irizpide malguagoak eta ñabardura gehiagokoak baliatuko dira esaldiaren zuzentasuna epaitzeko.

3.2. Lan prozedura

3.2.1. Inkestatuak

Bi inkestatu talderekin egin dugu ikerketa. Alde batetik, unibertsitateko ikasle batzuk, eta bestetik hizkuntzaren erabileran goi-mailako aditutzat jo daitezkeenak⁶. Elkarren kontrastean jarri nahi izan ditugu honako bi talde hauek: batetik, adinez 20 urteen inguruan diren gazte unibertsitarioak –euren irakasleen hizkuntza-iritzien arabera heziak-, eta bestetik goi-mailako hizkuntz aditu batzuk, *grosso modo* ikasle haien aurreko belaunaldikoen adinean direnak.

Unibertsitateko ikasleak Lehen Hezkuntzako Graduak ikasleak izan dira; beraz, etorkizunean irakasle izanen dira, 6-12 urte bitarteko adin tartean. UPV-EHUko hiru Irakasle Eskoletako ikasleak izan dira (Bilbo, Donostia eta Gasteizekoak), eta denak lehen mailan matrikulatuak ziren, 2010-2011 ikasturtean. Denetara 212 ikasle izan dira inkestatuak (gradu

⁵ “Ohikoak” izanen liriteke *Erderismos*-eko ereduaren arabera: aditza atzean; menpeko esaldiak nagusien aitzinetik; menperagailuak menpeko perpausaren amaieran...

⁶ Eskerrik asko haiei denei hain esku-zabalki eskaini diguten laguntza ederrarengatik, euren zeregin ugarien artean tarte bat guri emanda.

horietan, lehen ikasmilan, orotara 517 ikasle ziren matrikulatuak)⁷. Inkestatu talde honek ordezkaturako luke belaunaldi berriak nolako prestakuntza jaso duen hitzen hurrenkeraren aferari dagokionez. Gainera, lanbidez irakasleak izanen direnez, haien garrantzia handiagoa da, hurrengo belaunaldien hizkuntza-eredua eurek zehaztuko dutelako neurri esanguratsu batean.

Goi-mailako adituen taldea, berriz, 8 irakaslez osatua da eta denak ere hizkuntzaren erabiltzaile goi-mailakotzat jo daitezke (euskaltzain osoak, unibertsitateko hizkuntza-adituak...). Talde honetako kideak hautatzeko ez da erabili metodo estatistikoren bat haien ordezkartasuna bermatzeko baina halere uste dugu haien iritziek erreferentzia esanguratsua osa dezaketela nolako sentiberatasuna izan daitekeen goi-mailako aditu “eguneratuen” artean, hitzen hurrenkerari dagokionez.

Horrela hautaturiko ikasleek eta irakasleek ez dute ordezkaten estatistikoki beren belaunaldikoen edo erreferentziako talde guztien jarrera bere osoan (ez da hori izan asmoa), nahiz eta ikerketa honen marko mugatuan modu lasoan han edo hemen esan dezakegun ikasle horiek (nolabait) ordezkaten dutela “belaunaldi gaztea, prestakuntza bidean dena”, eta aditu taldeak, berriz, “belaunaldi heldua eta goieneko prestakuntzakoa” hemen aipatzen diren testu motetan.

3.2.2. Esaldi-sorta eta aztertze prozedura

Inkestatuei idatziz aurkeztu zitzaion esaldi sorta bat, non 62 item aztertu gogo ziren, 55 esalditan bilduak, beste esaldi batzuen artean. Aztergai ziren esaldietako osagaiak, *atzerakarga txikitze irizpidearen arabera ordenatuak* ziren baina denak jo zitezkeen zuzentzat (ez zuten, alegia, aldaketarik behar zuzentasunaren irizpidea gainditzeko), nahiz eta nola edo hala ez zituzten betetzen “azkue-altubetar legeak”⁸.

Inkestatuei galdetzen zitzaion esaldi horiek zuzentzeko, oker eratuak izanez gero. Esaldia onartzeko modukoa izanez gero, berriz, bere hala utzi behar zen, zuzenketarik egin gabe. Beraz, aurreikusiriko hipotesia beteko bazen, inkestatuek esaldiak zuzenduko zituzten, eta gainera atzerakarga handitzeko norabidean egingen zuten zuzenketa. Espero zen zuzenketa tipiko bat zen perpausaren aditza atzerago eramatea esaldian, halako moldez non emaitzak atzerakarga handiagoa izanen zuen ezen ez zuzendu-gai zen esaldiak.

Inkestatuak zuzenketarik egiten ez bazuen, atzerakargarako joera 0 ezartzen zitzaion item horrekiko; inkestatuak, ordea, zuzenketaren bat proposatzen bazuen atzerakarga handitzeko norabidean, orduan atzerakarga 1 jartzen zitzaion zuzentzaile horri item horrekiko⁹.

Gero, *atzerakarga handitzeko joeraren indizea* aterako zen, honela: zuzenduriko item guztiak zati zuzentzeko eskainiriko item guztiak. Gisa horretan jokatuta item bakoitzaren aurreko jarreraz ikasiko genuen, eta datuak izanen genituen, orobat, inkestaren erantzule bakoitzaren jarrera orokorraz.

⁷ Eskerrak eman nahi dizkiegu gure lan hau egiteko ezinbesteko laguntza esku-zabal eskaini diguten irakasle hauei: Ainhoa Ezeiza, Ander Olalde, Aintzane Etxebarria eta Urtza Garay. Haien laguntzarik gabe ezin izanen genuen lan hau egin.

⁸ Adituen taldeko kide batek item guztiak ontzat eman izanak erakusten digu “zilegi” dela guk erabiliriko zuzentasun irizpide “minimoa”.

⁹ Tarteko balio batzuk ere jarri izan dira zuzenketa gutxi batzuetan, zuzenketak “ezartzen” zuen atzerakargaren arabera.

3.3. Emaitzak

Lehenengo eta behin esan dezagun aditu adinduen eta ikasle gazteen artean agertu diren datuak aski desberdinak direla. Adituen taldean, atzerakarga handitzeko norabidean eginiko zuzenketak % 17 dira, batez bestekoak aterata; desbideratze tipikoa % 16,53 izan da. Gazte unibertsitarioen emaitzetan, berriz, atzerakarga handitzeko joera nabariki handiagoa izan da: batez bestekoan, % 61era iritsi da (desbideratze tipikoa, honetan, % 14,34). Ehuneko horiek irakur daitezke estatistikoki esanez ezen ikasleen batez bestekoak 100 “aukera” izanez gero atzerakarga handitzeko, 61 kasutan baliatuko litzatekeela aukera hori, eta atzerakarga handiagoko emaitzak aterako zirela zuzenketaren ondotik¹⁰. Gogora dezagun gure hipotesian esaldi guztiek gainditzen zutela bere hala zuzentasunaren irizpidea; hots, ez zela zeren eginik aldaketarik edo zuzenketarik esaldiek “zuzentasunaren langa” gainditzeko.

Aztergai zen item bakoitzari dagokionez ere atera dira emaitzak. Emaitza horiek osa dezakete lehen informazioa haien inguruan hausnarketa sakontzeko, irakaskuntzaren maila desberdinetan, esate baterako. Itemen azterketari gagozkiola, honako hauek bederen aipatzekoak iduritzen zaizkigu:

1. adituen taldean, hainbat item ez ziren batere zuzendu: 62 itemetatik 24 gelditu ziren onartuak bere hala, ukitu gabe (item guztien % 39); kontuan harturik altubetar “legeei” egozten genien eragina, zuzendu gabeko itemen kopurua garrantzitsua da, eta arau haien eragin mugatua erakusten du;
2. adituen taldean gehien zuzendu zen itema zuzentzaileen % 75ek zuzendu zuen;
3. unibertsitateko ikasleen artean ez zen item bakar bat ere izan inork ere zuzendu ez zuenik; gutxien zuzendu zen itema ikasleen % 23k aldatu zuen;
4. ikasle horien artean, % 93k zuzendu zuten gehien zuzendu zen itema.
5. Zuzentzaileen “soslaiaz”, berriz, hau nabarmenduko genuke:
6. adituen artean, batek item guztiak zuzentzat eman zituen, eta beraz ez du batere joerarik erakusten atzerakarga handitzeko (% 0);
7. adituen artean gehien zuzentzen duenak itemen % 42an ikusten du zerbait zuzentzeko; bestela esanda: 0,42ko indizea erakusten du atzerakarga handitzeko, beti ere item sorta horrekiko¹¹;
8. ikasleen artean, berriz, ikasle “toleranteenak” itemen % 8 besterik ez zuen zuzendu;
9. zuzentzeko joera handiena erakutsi zuen ikasleak itemen % 90 zuzendu zituen; ia denak zuzendu baitzituen, pentsa genezake aztergai jarritako itemek franko ongi balio zutela aztertu nahi zen gaia arakatzeko.
10. Item guztiak eta haien emaitzen berri jakiteko, ikus 1. taula.

¹⁰ Horrek badu garrantzia, ohartzen bagara inkestatu unibertsitarioak etorkizunean irakasle izateko prestatzen ari direla, eta beraz haien iritziek eragin nabaria izanzen dutela hurrengo belaunaldien prestakuntzan.

¹¹ Aditu batek hainbat item ontzat eman zuen aldatu gabe utzita, baina ondoan jarri zuen, aukeran, beste hurrenkera bat, aski ongi zetorrena “ohikotzat” jotzen dugun ordenamendu “atzerakargatuarekin”.

Azterturiko itemak	Atzerakargarako indizea	
	Adituak	Gazt.
1) Atzo eztabaida izan nuen lagun batzuekin munduan gertatzen ari diren gerra batzuei buruz.	0,03	0,56
3a) Azkenik, pentatzekoa da badela erlazioa jendearen komunikazio-kompetentziaren eta boterearen artean.	0,00	0,33
4a) Badut gogoa behingoan beldur horiek denak kentzeko!	0,00	0,40
5) Beldur naiz orain arte egin ditugun lan guztiak alferrekoak izango direla.	0,00	0,66
6) Bi alor ditugu: ahotsaren kontrola eta hitzez besteko komunikazioa. Ahotsaren kontrolean sartzen dira haren kalitate akustikoari dagozkion kontuak: inpostazioa, tonua, ñabardurak markatzea, eta gorabeherak eginez hitz egitea.	0,13	0,67
8) Bi aukera ditugu. Guk bigarrena hautatu dugu, uste dugulako irakasleen prestakuntzak eraldaketa hausnartua ekarri behar duela berarekin.	0,13	0,65
9a) Zer da "kompetentzia"? Kompetentzia da gaitasuna edo trebetasuna zereginak burutzeko edo hainbat egoerari aurre egiteko, modu eraginkorren.	0,38	0,85
10) Deialdi hau zuzenduta dago aurreko deialdietan argiraratuta dauden irakasgaiei eta ez besteei.	0,63	0,91
11a) Denek egin behar dituzte ariketa batzuk balio dutenak oinarrizko trebakuntza jasotzeko gai horren inguruan.	0,59	0,70
12) Desanimatzekoa da zenbat ordu sartu behar izan ditugun ikasgai bat bakarria gainditzeko.	0,00	0,24
13) Egile horiek uste dute baliagarria eta beharrezkoa dela, komunikazioaz gain, beste printzipio bat ere izatea.	0,06	0,38
14) Esaldi bat oker ulertzeko arriskua badago, obligazioa dago arrisku hori minimizatzen eta horretarako behar diren tresna guztiak erabiltzeko.	0,06	0,67
15a) Esan nahi dudana da zailagoa dela norberak egitea ariketa guztiak, besteren laguntzarekin aritzea baino.	0,03	0,25
15b) Esan nahi dudana da zailagoa dela ...- tea...	0,00	0,38
15c) Esan nahi dudana da norberak egitea ariketa guztiak vs ariketa guztiak norberak egitea	0,13	0,43
16) Esperantza dut gaurko negar guztiak egunen batean irri bihurtuko direla.	0,13	0,74
17) Eta orduan denak amasestuka sartu ziren gelan, itxura eginez lasterka etorri zirela inon ere gelditu gabe.	0,28	0,61
18b) Banku zentralak Euskadiko Gobernuaren zorraren kalitatea puntu bat jaistea erabaki du, nabarmenduta azken urte honetan zorra etengabe handitzen ari dela.	0,25	0,62
19) Europako Kontseiluak dio Espainiako eleaniztasuna babesteko ardura espainiar Gobernuari ere badagokiola.	0,13	0,55
20a) Euskal hiztunek asmatu baldin badute euskararentzat tokirik bilatzen, izan da euskarak beren beharrian komunikatiboak, hainbat alorretan bederen, betetzen zizkietelako.	0,06	0,50
20b) Euskal hiztunek asmatu baldin badute euskararentzat tokirik bilatzen, izan da euskarak beren beharrian komunikatiboak, hainbat alorretan bederen, betetzen zizkietelako.	0,38	0,75
21) Ez du batere ahaleginik egin guri laguntza bidaltzeko, badakien arren oso jende gutxi gabela eta lan handiegia dugula.	0,13	0,76
22) Ezin da aldaketa sakonik proposatu sistema guztian, kontuan hartu gabe hezkuntza instituzioko eragile garrantzitsuena (irakaslea).	0,38	0,75
23a) Frogatuko balitz ere salatutako torturak guztiz benetakoak direla, nekez ikusiko ditut pertsona batzuk torturaren kontrako fitxa mugitzen.	0,00	0,70
23b) Frogatuko balitz ere salatutako torturak guztiz benetakoak direla, nekez ikusiko ditut pertsona batzuk torturaren kontrako fitxa mugitzen.	0,00	0,18
24b) Guztiz hunkituta geratu nintzen lehengoan datuak ikustean Ipar Euskal Herriko pobrezia hazkundera buruz.	0,75	0,92

UGARTEBURU TERMINOLOGIA JARDUNALDIAK (2013)

J. MAIA; K. LARREA: "HITZEN HURRENKERA 'GOGORTUEGIA' ERABILTZEN OTE DUGU IDATZIAN?"

25) Haren eginkizun nagusia da giza eskubideak eta demokrazia babestea, eta helburu hori sendotasunez betetzen laguntzera dator Hizkuntzen Euroituna.	0,06	0,83
26) Hiru irakasleak gaiari ikuspegi historikoa ematen saiatu dira, ikusteko nola garatu diren euskarazko hedabideak azken 10 urteotan.	0,25	0,81
27a) Hizkuntza-gaitasunari esker pertsona gai da ulertzeko eta sortzeko inoiz entzun ez dituen perpausak ere.	0,13	0,62
28b) Horrela, oinarritzko hezkuntza-sistemaren bidez jendarteak norabide bat markatzen du zehazteko nolako jendea nahi lukeen etorkizunean.	0,25	0,63
29b) Langileek segur aski grebara joko dute, jakin ondoren enpresak laster atzerrira joateko asmoa duela.	0,63	0,84
30) Ikastetxeetan ere, gela nola antolatuta dagoen ikusteak ideia ematen digu nolako estilokoa den irakaslea edo bertan garatuko den jarduna.	0,06	0,48
31a) Ikusten duzunean nork agintzen duen hemen, ikasiko duzu berehala nor nola tratatu behar den.	0,28	0,62
31b) Ikusten duzunean nork agintzen duen hemen, ikasiko duzu berehala nor nola tratatu behar den.	0,06	0,41
32) Irakasleak badaki zeintzuk diren ikasleek behar dituzten orotariko laguntzak.	0,00	0,33
33) Italiarrak pozik daude, ikusitakoan Frantzia nola itzuli den etxera txapelketatik.	0,50	0,83
34a) Jakinarazten dizugu komisio berriak aplikatuko direla baloreen esparruan.	0,00	0,56
34b) Jakinarazten dizugu komisio berriak aplikatuko direla baloreen esparruan .	0,13	0,59
35a) Kompetentzien bidezko planteamenduak eskatzen du etengabe mugitzea kompetentzia orokorretatik berezietara eta haietatik operatiboetara.	0,00	0,79
36a) Kontuan harturik testua ez dela agertzen hurrenkera homogeneousen multzo gisa, Adam-ek proposatzen du hurrenkera testual prototipikoaren eredia.	0,00	0,34
36c) Kontuan harturik testua ez dela agertzen hurrenkera homogeneousen multzo gisa, Adam-ek proposatzen du hurrenkera testual prototipikoaren eredia.	0,75	0,69
37a) Lankide batek esan dit galdetzeko ea hori zer den eta euskaraz nola itzul daitekeen.	0,00	0,57
37b) Lankide batek esan dit galdetzeko ea hori zer den eta euskaraz nola itzul daitekeen.	0,00	0,71
38a) Lankideak prest agertzen dira elkarrekin ezagutza hori partekatu, alderatu, eztabaidatu, adostu eta, azken finean, elkarrekin eraikitzeko.	0,00	0,43
39) Lehiaketako epaimahaikideak izango dira zuzendaria, ikasketa burua , ikasleen kontseiluko burua eta gelako ordezkaria.	0,53	0,90
41a) Nahiago dut oraindik nire jarrera ez agertu, ikusten baitut beste guztiak ere isilik daudela.	0,00	0,27
41b) Nahiago dut oraindik nire jarrera ez agertu, ikusten baitut beste guztiak ere isilik daudela.	0,00	0,69
42a) Ni neu, konformatzen naiz ikustearekin bakoitzak bere proposamena defenditzen duela.	0,25	0,72
42b) Ni neu, konformatzen naiz ikustearekin bakoitzak bere proposamena defenditzen duela.	0,50	0,84
43a) Nik Bilbori buruz idatziko dut, jakinda beste edozein hiri handik berdin balio duela azterketa horretarako.	0,00	0,57
44) Nik zer nahi dudan? Nik nahi dut bokata bat patata tortilla eta kas bat laranja , besterik ez.	0,44	0,86
45) Nire lagun batek liburu bat idatzi du ibilbide erraz batzuk erakusteko eta horrela eskualdea ezagutzeko.	0,00	0,56
46) Ohitura dugu Sanferminetan familia guztia bildu eta elkarrekin bazkari bat egiteko.	0,13	0,81
47a) Oker ibiliko ginатеke uste izango bagenu duela hiruzpalau hamarkada arte euskara zela euskal hiztun ziren guztiak erabiltzen zuten hizkuntza bakarra.	0,00	0,28
47b) Oker ibiliko ginатеke uste izango bagenu duela hiruzpalau hamarkada arte euskara zela euskal hiztun ziren guztiak erabiltzen zuten hizkuntza bakarra.	0,00	0,55
48a) Ona da jakitea norberak bazkaria prestatzen eta etxeko lanak egiten.	0,00	0,44
48b) Ona da jakitea norberak bazkaria prestatzen eta etxeko lanak egiten.	0,28	0,81
49) Onartuz gero gutako edozeinek edozein lanetarako balio duela, nagusiek erosoago antolatuko lukete lana.	0,38	0,72
50a) Onartzen badugu eskolaren funtzio nagusietako bat hori dela, badugu beste arrazoi bat ahozkoa eskolan lantzeko.	0,25	0,68

51a) Pena ematen dit jakiteak kontzertuetara etortzen den jende guztiak ez duela ia inoiz nire diskorik erosi.	0,00	0,42
51b) Pena ematen dit jakiteak kontzertuetara etortzen den jende guztiak ez duela ia inoiz nire diskorik erosi.	0,00	0,63
52a) Telebistan entzun dut berria aurten Tourrean kontrol zorrotzagoak jarriko dituztela .	0,00	0,66
53) Ez dut inoiz ikusi irakaslerik bere irakasgaiari garrantzi txikia ematen dionik .	0,00	0,42
54a) Zaila izango da aparkatzeko tokia aurkitzea , harik eta erabilgarri izan arte Kiroldegiaren ondoan prestatuko ditugun behin-behineko aparkalekuak.	0,00	0,28
54b) Zaila izango da aparkatzeko tokia aurkitzea, harik eta erabilgarri izan arte Kiroldegiaren ondoan prestatuko ditugun behin-behineko aparkalekuak.	0,38	0,71

1.Taula: azterturiko itemak eta atzerakargarako indizeak (azterpuntuak, letra lodian)

4. Ondorioak eta gogoeta

Hogeigarren mendearen amaiera aldetik honat euskal hizkuntza ugariago sartu da eta gehiago erabiltzen da esparru berri batzuetan, adibidez unibertsitateko zereginetan. Horrek dakar estilo logiko-diskurtsiboa garatu beharra, horrela erdiesteko, ugari erabiltzen diren azalpen- eta argudio-testuetan, aski den dinako komunikazio-efizientzia. Horretarako ereduak aurkitu eta baliatu behar dira. Hartarako egin diren proposamenak hiru jarrera nagusitan bil daitezke: a) idealista-idiosinkratikoa (*Erderismos* 1929); b) laboratoriko homologatze lasterra (Rubio 2002); c) egokitzaile doitua (Zubimendi & Esnal 1993; eta beste...). Aipatzekoa iduritzen zaigu azken ildo honetan badirela proposamenak hala mundu akademikotik datozenak nola komunikabideetatik eta administrazioetik.

Markoaren azterketatik ateratzen dugu eboluzioa gertatzen ari dela hitzen hurrenkerari buruzko ideietan. Azken garaian ugariago dira jarrera “erderismostarretik” aldaratzeko proposamenak. Egungo iritziek iradokitzen dute jarrera idealista-idiosinkratikoak galtzen ari duela 70etan eta 80etan izan zuen balioa zuzentasun-erreferentzia gisa. Gaur egun oraindik joera horrek badu oraindik indarra baina aldatzen ari da eta joera egokitzaile doitura doaz adituen iritzia. Adituen artean, batez beste, alda-joera hori handiagoa da gazte unibertsitarioen artean baino. Horrek islatuko luke ikasleak zer ideien eraginpean egon diren beren formazio garaian (1990-2010, gutxi gorabehera).

Markoaren azterketak iradokitzen digu, halaber, badirela arrazoi linguistikoak, psikolinguistikoak eta soziolinguistikoak euskararen garabidea ez oinarritzeko zertan-eta hizkuntzaren berezitasunak muturreraino eramateko joeretan. Inguruko hizkuntzen joerekin bat datozen euskararen baliabideak eta ezaugarriak ez lirarteke baztertu behar eta bai, aldiz, arretaz analizatu eta haiekin gogotik bat egin, baldin eta hizkuntzaren komunikazio-efizientzia hobetzen badute.

Egin dugun azterketa enpirikoaren emaitzak ongi heldu dira hipotesian formulaturiko ideiarekin: alegia, bilakaera gertatzen ari dela eredu idealista-idiosinkratikoaren nagusigotik egokitze-jarrera doitua eragina handitzera. Adituak ohartuago daude malgutasuna bilatu beharraz (esaldien % 17ri handitu diote atzerakarga); gazteek aisa handiagoa jartzen diete esaldiei atzerakarga (% 61 zuzendu dute eta atzerakarga berretu).

Aipatzekoa da erantzunen zabaltasun-gradua: ikasleen artean gutxien zuzendu duenaren eta gehien zuzendu duenaren artean nabaria da aldea (% 8 zuzentzetik % 90era); adituen artean zuzen-zorroztasuna % 0tik % 42ra ibili da. Alde horien arrazoia egotz dakioke, gure ustez, hala euskararen normalizazio prozesuari bere osoan nola, zehatzago, goian aipatu dugun iritzien eboluzio-prozesuari.

Uste dugu proposamen zehatz bakoitza aztertu behar dela eta beti komunikazio-bizkortasuna edo komunikazio-efizientzia izan behar dela gidari. Esaldi mota guztiak aztertu beharko lirateke sistematikoki eta irtenbideak analizatu sakonki. Iradokiko genuke afera honi arreta berezia jartzeko hezkuntzaren munduan, maila bakoitzak dituen ezaugarrien arabera (Haur Hezkuntzatik unibertsitate mailara). Iritzia dugu zuzentasun irizpideak xehero aztertu behar direla, kontuan harturik, besteak beste, testuaren mota eta prozesatzeko erraztasun-zailtasunak. Aurkeztu dugun ikerketa enpirikoak datu batzuk erakusten ditu haien gainean azterketa eta eztabaida hasteko.

Beste hizkuntzetatik bereizi behar “bortxatua” arriskutsua litzateke batez ere hiztun eleaniztuna euskara erabiltzen “edukitzeko” edo hartara erakartzeko, globalizazioak ekarri duen hizkuntzen arteko aukeran/lehian. Ingurua gero eta eleaniztunagoa izanik, eta aintzat harturik zer ezaugarri dituzten euskararekin kontaktu bizia duten hizkuntzek (gaztelania/frantsesa eta ingelesa), uste dugu handitu egingen dela joera eredu idealista-idiosinkratikotik jarrera egokitzailerako doitura etortzeko. Noranzkoa erabakitzeko bi faktorek behinik behin izanen dute axola: zenbateraino erabiliko diren egiazki euskarazko testu azalpenezkoak eta argudiozkoak¹², eta zenbat jende euskaldun izanen den etorkizunean hirueleduna. Bi faktore horietan joera handitzekoa baldin bada, gure iduriko euskararen atzerakarga oraindik gehiago txikitzeko jaidura izanen da ondoko urteetan.

Bidea egin behar da hizkuntza eredu ustez “ideal” batetik komunikazio-bizkortasun handiko eredu batera. Beste hizkuntzekin batera “kudeatu” behar da euskara jendartean eta burmuinean, eta horrek lankidetzatik eta lehiatik ere badu zerbait, nahi bada eta ez bada; eta joko horretan aritzeko, tresna eroso nahi da, zaulia eta joria.

Erreferentzia bibliografikoak

- ALBERDI X., SARASOLA I. (2001): *Euskal estilo libururantz. Gramatika, estiloa eta hiztegia*, Bilbao: Servicio Editorial UPV-EHU.
- ALTUBE S. (1975): *Erderismos*, Bilbao: Cinsa.
- AREJITA, A. (1983): *Euskal joskera*, Durango: Leopoldo Zugaza, Editor.
- ARISTEGIETA X. (2009): “Euskarazko testuen komunikagarritasun-problema larriak”, *Senez*, 37: 103-141.
- BERRIA (2006): *Estilo liburua*, Andoain: Berria.
- CENOZ J., HUFSEISEN B., JESSNER U. (ed.) (2001): *Crosslinguistic Influence in Third Language Acquisition: Psycholinguistic Perspectives*, Clevedon: Multilingual matters ltd.
- CENOZ J., JESSNER U. (ed.) (2000): *English in Europe. The Acquisition of a Third Language*, Clevedon: Multilingual matters ltd.
- EHIK (2009): *Ikastolen hizkuntz proiektua*, Zamudio: EHIK.
- EUSKALTZAINDIA (2011): *Hitz-ordena. Erabilera estrategikoa*, Bilbo: Euskaltzaindia.
- EUSKO JAURLARITZA (2011): *Hezkuntza marko hirueledunaren saiakuntza prozesua*. Vitoria-Gasteiz: EJAZN.
- EUSKO JAURLARITZA (2012): *V. azterketa soziolinguistikoa*. Vitoria-Gasteiz: EJAZN.
- GARZIA, J. (1997): *Joskera Lantegi*, Donostia: EAEA-IVAP.
- GOENAGA, P. (1980²): *Gramatika bideetan*, Donostia: EREIN-HEGAZ.

¹² Testu mota horiek sortu digute lan honen hasierako gogoeta, baina horrek ez du esan nahi besteek ez dutela eraginik, ez horixe.

- GROSJEAN, F. (1989): “Neurolinguists, Beware! The Bilingual Is Not Two Monolinguals in One Person”, *Brain and Language* 36, 3-15.
- HERDINA, P.; JESSNER, U. (2002): *A Dynamic Model of Multilingualism*, Clevedon: Multilingual Matters.
- HIDALGO, Bittor (1996): “Hurbiltze bat euskal hitz-ordenaren tradizioari”, in *Fontes Linguae Vasconum*, 71: 21-43.
- HIDALGO, B. (2002): “Hitzen ordena esaldian”, *Senez*, 25: 75-109.
- IBAR. (1935): *Genio y lengua*, Tolosa: Mocoroa hnos.
- IVAP-EHAA (2003): *Galdezka. Euskarazko zalantzei erantzunez*, Vitoria-Gasteiz: EAEE-IVAP.
- IVAP-EHAA. (2005): *IVAPeko estilo-liburua*, Vitoria-Gasteiz: EAEE-IVAP.
- JESSNER U. (2006): *Linguistic Awareness in Multilinguals. English as a Third Language*, Edinburgh: Edinburgh University Press.
- KALTZAKORTA, M. (2007): *Prosa komunikagarriago egiten (zenbait proposamen)*, Bilbao: UEU.
- LASAGABASTER, D. (2000): “Three Languages and Three Linguistic Models in the Basque Educational System”, in Cenoz & Jessner (ed.). *The Acquisition of a Third Language*: 179-197.
- MAIA, J., LARREA, K. (2012): “En el mar de la globalización, ¿hacia dónde remamos en la sintaxis vasca?”, in LLANES, A. (koord.) eta beste (2012): *La Lingüística Aplicada en la era de la globalización*, Lleida: Edicions de la Universitat de Lleida: 419-424.
- MITXELENA, K. (1968): “Ortografia”, *Euskera*, 13: 203-219.
- RUBIO J. (2002): *Euskararen garabideak*, Irun: Alberdania.
- TXILLARDEGI (1977) [1970]: *Oinarri bila. Morfosintasian eta fonologian*, Donostia: Álvarez-Lorea.
- TXILLARDEGI (1978): *Euskal gramatika*, Bilbao: Ediciones Vascas.
- UPV-EHU (2011): *UPV-EHU zenbakitan 2010-2011*, [Interneteko helbidea <http://www.ehu.es/p200-home/eu> (2013-02-22)]
- VILLASANTE L. (1975): “Hitzaurre gisa”, in ALTUBE, S. (1975): V-XII.
- VILLASANTE L. (1979): *Sintaxis de la oración compuesta*, Oñate: EFA.
- VILLASANTE L. (1988): *Euskararen auziaz*, Estella: EFA.
- ZUBIMENDI, J. R., ESNAL P. (1993): *Idazkera-liburua*, Vitoria-Gasteiz: Gobierno Vasco-Consejería de Cultura.